# Antzerkiaren Nazioarteko Egunaren mezua (2019ko martxoaren 27a)

Antzerkiaren mundura ernatu nintzen baino lehenago, han ziren nire maisu-maistrak. Beren bizitzen hondakinen gainean eraikiak zituzten beren bizitzak eta poetikak. Haietako asko ez dira ezagunak, edo inork gutxik oroitzen ditu: isiltasunean lan egin zuten, beren entsegu-gela eta ikuslez beteriko aretoen umiltasunean, eta, laneko eta lorpen aparteko urteen ondoren, lekua uzten joan ziren, eta desagertu egin ziren. Neure lanbide eta patu pertsonala haien urratsei jarraitzea zela ulertu nuenean, aldi berean ulertu nuen usadio lazgarri eta bakar hau jasotzen nuela haiengandik: une errepikaezin baten gardentasuna lortzea beste itxaropenik gabe bizitzea. Bestearekin elkartze-une labur bat, antzoki baten iluntasunean, keinu baten, hitz adierazgarri baten babesa besterik ez dagoela.

Elkartze-une horiexek dira nire antzerki-herrialdea: ikusleak gauez gau, nire hiriko edozein txokotatik, gure aretora etortzen direnean, guri lagun egiteko, eta gurekin partekatzeko ordu batzuk, minutu batzuk. Une paregabe horiekin eraikitzen dut neure bizitza; neu izateari eta neure buruagatik sufritzeari utzi, eta berpiztu, eta ulertu egiten dut antzerkigintzaren esanahia: egia iragankor hutsaren liparrak bizitzean, zeinetan baitakigu han, eszenatokiaren argien pean, benetakoa dela esaten eta egiten ari garena, eta geure baitako alderdirik sakonenak eta pertsonalenak islatzen dituela. Nire antzerki-herrialdea, nirea zein nire aktoreena, maskarak, erretorika eta gu geu izatearen beldurra atzean utzi eta iluntasunean elkarri bostekoa ematen diogun une horiek ehundutako herrialdea da.

Horizontala da antzerkiaren usadioa. Inork ezin du esan antzerkia munduaren inongo erdialdetan dagoenik, ezta inongo hiri edo eraikin pribilegiatutan ere. Antzerkia, nik jaso dudan moduan, geografia ikusezin batean hedatzen da, eta geografia horrek antzerkia egiten dutenen bizitzak eta antzerki-artisautza nahasten ditu keinu bateratzaile berean. Beren argitasun- eta edertasun-une errepikaezinekin batera hiltzen dira antzerkiko maisu-maistra guztiak; modu berean desagertzen dira denak, babestuko dituen eta ospetsu egingo dituen bestelako haraindikotasunik utzi gabe. Antzerkiko maisu-maistrek badakite; inongo aintzatespenek ez du balio gure lanaren oinarria den ziurtasun horren aurrean: egia-uneak, anbiguotasun-uneak, indar-uneak, askatasun-uneak sortzea, prekarietaterik handienean. Datuak baino ez dute iraungo beraiengandik, beraien lanen bideo- edo argazki-erregistroak, egin zutenaren isla kolorgea. Erregistroetan, baina, beti faltako da ikusleen erantzun isila, ondo baitakite han gertatzen ari dena ezin dela ez itzuli ez kanpoan aurkitu, han partekatutako egia bizi-esperientzia dela, zenbait segundotan, behintzat, bizitza bera baino gardenagoa.

Antzerkia, berez, herrialde bat dela, mundu osoa hartzen duen lurralde handi bat dela ulertu nuenean, aldi berean jaio zen nire baitan askatasun bat ere den ziurtasun bat: ez duzu zertan urrundu edo zauden tokitik mugitu, ez duzu zertan lasterka ibili edo beste inora joan. Zaren tokian daude ikusleak. Hantxe daude ondoan behar dituzun kideak ere. Han, etxetik kanpo, eguneroko errealitatea duzu, opaku eta zeharkaezina. Itxurazko gelditasun horretan egiten duzu lan, orduan, bidaiarik handiena eraikitzeko, Odisea, argonauten bidaia errepikatzeko: bere mundu errealaren dentsitatea eta zurruntasuna etengabe azkarragotzen ari den bidaiaria zara. Zure bidaia liparreranzkoa da, uneranzkoa, errepikatu ezin den zure parekoekin elkartzeranzkoa. Haienganakoa da zure bidaia, haien bihotzerakoa, haien subjektibotasunerakoa. Haien barruan bidaiatzen duzu, haien emozioen barruan, ernatzen eta mugiarazten dituzun oroitzapenen barruan. Abiada bizikoa da zure bidaia, eta inork ezin du ez neurtu ez isilarazi. Inork ere ez du aintzatetsiko behar bezala, zuretarren imajinarioan zeharreko bidaia baita, lurrik urrunenetan ereindako hazia: zure ikusleen gizabidezko kontzientzia etiko eta gizatiarra. Horregatik, ez naiz mugitzen; etxean jarraitzen dut, adiskide eta senideen artean, itxurazko gelditasunean, gau eta egunez lanean, abiaduraren sekretuarena jabe bainaiz.

Carlos Celdrán (Cuba)
Eszena-zuzendaria, dramaturgoa, antzerki-hezitzailea eta irakaslea.
Carlos Celdrán hainbat sari irabazitako entzute handiko antzerki-zuzendaria da, dramaturgoa, akademikoa eta irakaslea; Habanan (Kuba) bizi eta lan egiten du, eta mundu osoan aurkeztu du bere lana.



TEATRO ANTZOKIA PRINCIPAL VITORIA-GASTEIZ !

## Mensaje por el Día Mundial del Teatro (27 marzo, 2019)

Antes de mi despertar en el teatro, mis maestros ya estaban allí. Habían construido sus casas y sus poéticas sobre los restos de sus propias vidas. Muchos de ellos no son conocidos o apenas se les recuerda: trabajaron desde el silencio, desde la humildad de sus salones de ensayo y de sus salas llenas de espectadores y, lentamente, tras años de trabajo y logros extraordinarios, fueron dejando su sitio y desparecieron. Cuando entendí que mi oficio y mi destino personal sería seguir sus pasos, entendí también que heredaba de ellos esa tradición desgarradora y única de vivir el presente sin otra expectativa que alcanzar la transparencia de un momento irrepetible. Un momento de encuentro con el otro en la oscuridad de un teatro, sin más protección que la verdad de un gesto, de una palabra reveladora.

Mi país teatral son esos momentos de encuentro con los espectadores que llegan noche a noche a nuestra sala, desde los rincones más disímiles de mi ciudad, para acompañarnos y compartir unas horas, unos minutos. Con esos momentos únicos construyo mi vida, dejo de ser yo, de sufrir por mí mismo y renazco y entiendo el significado del oficio de hacer teatro: vivir instantes de pura verdad efímera, donde sabemos que lo que decimos y hacemos, allí, bajo la luz de la escena, es cierto y refleja lo más profundo y lo más personal de nosotros. Mi país teatral, el mío y el de mis actores, es un país tejido por esos momentos donde dejamos atrás las máscaras, la retórica, el miedo a ser quienes somos, y nos damos las manos en la oscuridad.

La tradición del teatro es horizontal. No hay quien pueda afirmar que el teatro está en algún centro del mundo, en alguna ciudad o edificio privilegiado. El teatro, como yo lo he recibido, se extiende por una geografía invisible que mezcla las vidas de quienes lo hacen y la artesanía teatral en un mismo gesto unificador. Todos los maestros de teatro mueren con sus momentos de lucidez y de belleza irrepetibles, todos desaparecen del mismo modo sin dejar otra trascendencia que los ampare y los haga ilustres. Los maestros de teatro lo saben, no vale ningún reconocimiento ante esta certeza que es la raíz de nuestro trabajo: crear momentos de verdad, de ambigüedad, de fuerza, de libertad en la mayor de las precariedades. No sobrevivirán de ellos sino datos o registros de sus trabajos en videos y fotos que recogerán solo una pálida idea de lo que hicieron. Pero siempre faltará en esos registros la respuesta silenciosa del público que entiende en un instante que lo que allí pasa no puede ser traducido ni encontrado fuera, que la verdad que allí comparte es una experiencia de vida, por segundos más diáfana que la vida misma.

Cuando entendí que el teatro era un país en sí mismo, un gran territorio que abarca el mundo entero, nació en mí una decisión que también es una libertad: no tienes que alejarte ni moverte de donde te encuentras, no tienes que correr ni desplazarte. Allí donde existes está el público. Allí están los compañeros que necesitas a tu lado. Allá, fuera de tu casa, tienes toda la realidad diaria, opaca e impenetrable. Trabajas entonces desde esa inmovilidad aparente para construir el mayor de los viajes, para repetir la Odisea, el viaje de los argonautas: eres un viajero inmóvil que no para de acelerar la densidad y la rigidez de tu mundo real. Tu viaje es hacia el instante, hacia el momento, hacia el encuentro irrepetible frente a tus semejantes. Tu viaje es hacia ellos, hacia su corazón, hacia su subjetividad. Viajas por dentro de ellos, de sus emociones, de sus recuerdos que despiertas y movilizas. Tu viaje es vertiginoso y nadie puede medirlo ni callarlo. Tampoco nadie lo podrá reconocer en su justa medida, es un viaje a través del imaginario de tu gente, una semilla que se siembra en la más remota de las tierras: la conciencia cívica, ética y humana de tus espectadores. Por ello, no me muevo, continúo en mi casa, entre mis allegados, en aparente quietud, trabajando día y noche, porque tengo el secreto de la velocidad.

Carlos Celdrán (Cuba)

Director de escena, dramaturgo, educador teatral, profesor.
Carlos Celdrán es un director teatral galardonado con premios y de elevado prestigio, dramaturgo, académico y profesor, vive y trabaja en La Habana, Cuba, y presenta su trabajo alrededor del mundo.



TEATRO ANTZOKIA PRINCIPAL VITORIA-GASTEIZ